

IGERIKETARAKO ARAU ESPEZIFIKOAK, 2020-2021 IKASTURTERAKOAK

1. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren izena

IGERIKETA

2. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren joko araudiak

EZ DA BEHARREZKOA ARAUDIA EGOKITZEA.

3. Kirol federazioek antolatutako txapelketetarako edo jardueretarako jarduketa arauak

C.1 ALDERDI OROKORRAK

- 1) Arau espezifiko hauek aplikagarriak dira eskolako igeriketa txapelketa guztietan.
- 2) Dagokion egutegian jasotako eskolako igeriketako txapelketa bat antolatuko duten klub edo federazio guztiek eskatu beharko diote dagokion entitateari igerilekuaren inguruko edukiera, eta hura jaso beharko dute (instalazioaren jarduera lizentzian eta autobabes planean ageri da).
- 3) Txapelketetan izena emateko azken eguna, ahal dela, txapelketa egingo den astearen astelehenera aurreratuko da.
- 4) Edukiera kontuan hartzeko, honako hauek ere kontuan hartuko dira, kirolari kopuruaz gain: Klubeko osasun arduraduna, epaimahai teknikoa, txapelketako zuzendaria eta kaleko kronometratzaile bana, kronometratzaile bolante bat, txapelketako idazkaria, irteera kameraren arduraduna, kronometro elektronikoaren arduraduna –halakorik balego–, eta klub edo ikastetxe bakoitzeko teknikari edo ordezkari bana. Euskadiko Eskola Jokoen kasuan, gehienez teknikari edo ordezkari bat hartuko da kontuan selekzio bakoitzeko 20 kirolariko.

- 5) Osasun arduraduna, epaimahai teknikoa edo txapelketako zuzendaria, kronometratzaileak (bolantea barne), idazkaria, irteera kameraren arduraduna eta kronometro elektronikoaren arduraduna igerilekuan egon beharko dira beroketa hasi baino gutxienez 15 minutu lehenago. Osasun arduradunak A eranskina beteko du, eta aurretik zehaztutako guztiei tenperatura hartuko die. Haietakoren batena 37° C baino gehiagokoa bada, ez zaio utziko igerilekura sartzen.
- 6) Klub bakoitzeko teknikariak edo ordezkariak osasun arduradunari horretarako gaitutako igerilekuko sarrerako atean B eranskina eman beharko dio, apartatu guztiak beteta, tenperaturarena izan ezik, arau orokorretan zehaztutako eranskinekin batera. B eranskin bat aurkeztuko da txapelketa banatu den zati bakoitzeko. Garraioaren laukian honako hau adieraziko da: familiako autoa, klubaren autobusa, garraio publikoa eta abar. Osasun arduradunak eranskin horretan jasoko du tenperatura. Haietakoren batena 37° C baino gehiagokoa bada, ez zaio utziko igerilekura sartzen.
- 7) Arau orokorretan zehaztutako eranskinak, A eranskina eta B eranskin guztiak federaziora bidaliko dira, gainerako dokumentuekin batera.
- 8) Beroketetan ezingo da inongo osagarriak erabili, pull-boy taula edo antzekorik.
- 9) Inor ezingo da igerilekura oinutsik sartu, eta, ahal dela, txankletak eraman beharko ditu, eta, bestela, oinetakoak babestekoak.

C2 TXAPELKETA PROGRAMAREN ANTOLAKETA

- 1) Txapelketa programa behar bezala eraldatuko da, instalazioaren ezaugarriak kontuan hartuta (edukiera, espazioa, barruko mugimenduak eta abar).
- 2) Edukiera eta espazio murriztua duen instalazioa.
 - 2.1.- Txapelketa programa, banakako probak
Behin instalazioaren edukiera eta dagokion federazioan (lurraldekoan edo EAEkoan, txapelketaren arabera) txapelketarako egindako izen emateak ezagututakoan, beharrezkoa bada, txapelketa zatikatuko da, instalazioaren edukiera inoiz ez gainditzeko, eta txapelketako proben hurrenkera aldatuko da, probak sexuka, adinka edo sexuka eta adinka multzokatuz, adibidez.
 - 2.2.- Txapelketa programa, errelebo probak
Proben programan errelebo proba mistoak bakarrik badaude, sexu bakarreko erreleboak onartuko dira.

2.3.- Beroketa

A.- Txapelketa programak igerilariak sexuka bereizten baditu, beroketak berdin egingo dira, txapelketa hasi aurretik.

B.- Txapelketa programak igerilariak sexuka eta jaiotze urteka bereizten baditu, beroketak berdin egingo dira, txapelketa hasi aurretik.

3) Edukiera eta espazio handia duen instalazioa

3.1.- Proben programa mantendu egingo da.

3.2.- Beroketa Une oro baimendutako edukiera mantentzeko, beroketak klub en arabera edo sexuka banatu ahal izango dira.

C3 ERTZAK – Beroketa eta txapelketa

1) Gune mugatua, igerilari, teknikari eta ofizialentzat soilik.

2) Une oro errespetatu beharko da instalazioaren baimendutako edukiera.

3) Sartzeko, horretarako adierazitako gunea erabili beharko da, eta etengabe errespetatu beharko da segurtasun distantzia.

4) Igerilariak bainujantziarekin, txanoarekin, betaurrekoekin eta txankletekin (aurretik desinfektatutakoak) bakarrik sartu ahalko dira, inolako material osagarririk gabe.

5) Teknikariak maskarekin sartuko dira, eta oinetakoak aurretik desinfektatuta. Beste material osagarriren bat behar badute, desinfektatu egin beharko dute.

6) Behin parte hartu dutenean, igerilariak, teknikariak eta ofizialak igerilekuaren ertzetik joan egin beharko dira, segurtasun distantzia errespetatuz, horretarako gaitutako lekutik. Behar bezala seinaleztatuta egongo da, eta ez da sarreraren leku bera izango.

C4 URA – BEROKETA

1) Gune mugatua, txapelketan parte hartuko duten igerilariarentzat soilik.

2) Une oro errespetatu beharko dira kale bakoitzerako baimendutako edukiera eta beroketa egiteko ezarritako hurrenkera.

3) Igerilariak bertara soilik bainujantziarekin, txanoarekin eta betaurrekoekin sartu beharko dira, inongo material osagarririk gabe.

4) Une oro, igerilariak segurtasun distantzia errespetatu beharko dute, bai uretara sartzean bai bertan daudenean.

5) Behin beroketa amaitutakoan, igerilariak uretara horretarako gaitutako lekuetatik atera beharko dira.

C5 URA – TXAPELKETA

1) Gune mugatua, txapelketan parte hartuko duten igerilariarentzat soilik.

2) Ez dago edukiera arazorik, beti kaleko igerilari bateko ratioa egongo baita.

- 3) Irteeraren aurreko unean, igerilariak segurtasun distantzia errespetatu beharko dute.
- 4) Behin proba amaitutakoan, igerilariak igerilekutik irten beharko dira, une oro segurtasun distantzia errespetatuz, horretarako adierazitako lekuetatik.

C6 TXAPELKETAKO IDAZKARIA

- 1) Gune mugatua, bertako arduradunentzat bakarrik.
- 2) Honako hauek izango dute bertan egoteko baimena:
 - Txapelketako idazkaria (1-2 pertsona)
 - Megafoniako arduraduna (pertsona 1)
 - Kronometratze elektronikoko arduraduna (1-2 pertsona).
- 3) Aurretik zerrendatutako guztiak barne, une oro errespetatuko da instalazioaren baimendutako edukiera.
- 4) Pertsona horiek maskara erabili beharko dute, eta eskuragarri izan beharko dituzte disoluzio hidroalkoholikoak, haien eskuak erregularri garbitzeko.
- 5) Gainera, etengabe segurtasun distantzia mantentzeko moduan kokatuko dira.
- 6) Txapelketako idazkaritza dagoen lekura sartzeko, horretarako adierazitako gunea erabili beharko da, eta mailaka, jende pilaketak saihesteko.
- 7) Idazkaritza, megafonia eta kronometratze elektronikoen lanak egiteko beharrezko materiala aurrez desinfektatu egin beharko da. Disoluzio desinfektatzaileak jarriko dira erregularri desinfektatzeko.
- 8) Behin txapelketa amaitutakoan, txapelketako idazkaritza osatzen dutenak gunetik irtengo dira, mailaka, horretarako gaitutako lekutik, behar bezala seinaleztatu beharko denetik.

C7 TXAPELKETAKO ZUZENDARITZA

- 1) Txapelketak iraun bitartean lan guztiak egin ahal izateko, gune guztietara sartu ahal izango da.
- 2) Instalazioan, txapelketako idazkaritzatik gertu egongo da kokatuta.
- 3) Gune guztietara seinaleztatutako lekuetatik sartuko da, oinetakoak desinfektatu ondoren.
- 4) Une oro mantenduko du segurtasun distantzia, eta maskara erabiliko du. Eskuragarri izango ditu disoluzio hidroalkoholikoak, eskuak erregularri garbitzeko.
- 5) Berezko lanak egiteko beharrezko materiala aurrez desinfektatu egin beharko da.
- 6) Behin txapelketa amaitutakoan, instalaziotik horretarako gaitutako lekutik irtengo da, eta toki hori behar bezala seinaleztatuta egon beharko da.

C8 TXAPELKETAKO EPAIMAHAI

- 1) Igerileku ertzean egon ahal izango dira, bertan egingo baitituzte beren lanak txapelketak iraun bitartean.
- 2) Instalazioaren edukiera une oro errespetatzeko, zenbatu egingo dira, kirolariek, teknikariek eta baimendutako gainerakoekin batera.
- 3) Igerileku ertzerantz sartzeko, horretarako adierazitako gunea erabili beharko da, eta mailaka, jende pilaketak saihesteko.
- 4) Oinetakoak aurretik desinfektatu beharko dira, eta maskarak erabiliko dituzte. Disoluzio hidroalkoholikoak izango dituzte eskura, eskuak erregularoki garbitzeko.
- 5) Igerileku ertzean daudenean, etengabe mugitu arren, une oro errespetatu beharko dute segurtasun distantzia gainerako pertsona baimenduekin.
- 6) Beren lanak egiteko beharrezko materiala aurrez desinfektatu egin beharko da. Disoluzio desinfektatzaileak jarriko dira erregularoki desinfektatzeko.
- 7) Behin txapelketa amaitutakoan, igerileku ertzetik horretarako gaitutako lekutik irtengo da, mailaka, eta toki hori behar bezala seinaleztatuta egon beharko da.

C9 KRONOMETRATZAILEAK

- 1) Igerileku ertzean egon ahal izango dira, bertan egingo baitituzte beren lanak txapelketak iraun bitartean.
- 2) Instalazioaren edukiera une oro errespetatzeko, zenbatu egingo dira, kirolariek, teknikariek eta baimendutako gainerakoekin batera.
- 3) Igerileku ertzerantz sartzeko, horretarako adierazitako gunea erabili beharko da, eta mailaka, jende pilaketak saihesteko.
- 4) Oinetakoak aurretik desinfektatu beharko dira, eta maskarak erabiliko dituzte. Disoluzio hidroalkoholikoak izango dituzte eskura, eskuak erregularoki garbitzeko.
- 5) Igerileku ertzean daudenean, kale bakoitzeko pertsona bat egongo da, eta une oro errespetatu beharko dute segurtasun distantzia gainerako pertsona baimenduekin.
- 6) Beren lanak egiteko beharrezko materiala aurrez desinfektatu egin beharko da. Disoluzio desinfektatzaileak jarriko dira erregularoki desinfektatzeko.
- 7) Behin txapelketa amaitutakoan, igerileku ertzetik horretarako gaitutako lekutik irtengo da, mailaka, eta toki hori behar bezala seinaleztatuta egon beharko da.

C10 IRTEERA GANBERA

- 1) Kontuan hartuko dira instalazioaren ezaugarriak (edukiera, espazioa, barruko mugimenduak eta abar), horren inguruan erabakitzeko.
- 2) Igerilari bakoitzak segurtasun distantzia errespetatzeko hartu beharko duen espazioa mugatu eta markatu egingo da.

- 3) Ganberarako sarrera behar bezala seinaleztatu beharko da, eta igerilariak mailaka bertaratu beharko dira, pilaketak saihesteko, eta segurtasun distantzia errespetatuz.
- 4) Igerilariak bainujantziarekin, txanoarekin, betaurrekoekin eta txankletekin (aurretik desinfektatutakoak) bakarrik sartu ahalko dira.
- 5) Igerilariak ganberatik irtengo dira ganberaren arduradunak ezarritako hurrenkeran, banaka, eta irteerarako espaziora sartuko dira. Igerilari bakoitza bere kalera joango da.

C11 SARI BANAKETAK

- 1) Sari banaketetan erabiltzen diren domina, garaikur eta material osagarri guztiak aurrez desinfektatuko da.
- 2) Sari banaketa behar bezala eraldatuko da, instalazioaren ezaugarriak kontuan hartuta.
- 3) Saritze podiumak pilaketak saihesteko moduko gune batean kokatuko dira, eta hiruren artean segurtasun distantzia utziko da.
- 4) Saritutako igerilariak eta dominak emango dituzten pertsonak maskara izango dute, eta segurtasun distantzia mantenduko errespetatuko.
- 5) Igerilariak mailaka deituko zaie, pilaketak saihesteko.
- 6) Saritze gunerako sarrera behar bezala seinaleztatuta egongo da, baita irteerakoa ere, ezberdinak izango baitira.

C12 HARMAILAK

- 1) Oro har, osasun agintariak ezarritako neurri guztiak beteko dira.
- 2) Igerilariarentzako bakarrik diren harmailak.
 - A.- Gune mugatua, igerilariarentzat, teknikariarentzat eta ordezkariarentzat soilik.
 - B.- Une oro errespetatu beharko da instalazioaren baimendutako edukiera.
 - C.- Sartzeko, horretarako adierazitako gunea erabili beharko da, etengabe errespetatu beharko da segurtasun distantzia, eta pilaketak saihestu beharko dira.
 - D.- Igerilariak, teknikariak eta ordezkariak segurtasun distantziak errespetatu beharko dituzte mugitzerakoan.
 - E.- Egiatuz gero oso zaila dela segurtasun distantziak errespetatzea, maskarak nahitaez erabili beharko dira.
 - F.- Harmailetatik irteteko, horretarako adierazitako gunea erabili beharko da, etengabe errespetatu beharko da segurtasun distantzia, eta pilaketak saihestu beharko dira.

4. Parte hartzen duten entitateetan egin beharreko entrenamenduetarako eta saioetarako jarduketara arauak.

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten